

Ez dago argi zer den lehenago, pentsamendua ala lengoaia. Pentsamendua eta lengoaia bidirekzionalak dira, batak bestea elikatzen baitu:

Pentsamendua  Lengoaia

## **1: PENTSAMENDUA:**

### **1.1: PENTSAMENDUAREN KONTZEPTUA:**

-DEF: Era logiko batean, kontzeptuak sortzeko, arazoak ebazteko, erabakiak hartzeko eta iritziak eratzeko gaitasuna. Prozesamenduarekin, ulermenarekin, gogoratzeko ahalmenarekin eta komunikatzeko ahalmenarekin erlazionatua dagoena. Lege propio batzuk jarraitzen ditu. Beste modu batera ere defini genezake pentsamendua: emandako eduki errepresentatiboen artean harreman kontzeptualak ezartzeko funtzio psikologikoa da.

-Pentsamendua 3 egituratan azaltzen da, hau da, pentsatzeko 3 tresna daude eta tresna horiek ideiak espresatzeko balio dute:

-**Kontzeptuak:** Esperientziak sailkatzen dituzten kategoria mentalak dira. Adib: Aulkia lau hanka dituen objektua da.

-**Irudiak:** Irudikatze balio diguten esperientzi sensorialen oroitzapen mentalak dira. Askotan saiatzen gara pertsona bat irudikatzen eta batzuetan, nahiz eta oso ondo ezagutu, ez dugu irudikatzerik lortzen.

-**Prototipoak:** Kontzeptuaren oinarritzko ezaugarriak barnean dituzten eredu mentalak dira, zeinak kategoria baten adibidetzat hartzen ditugun. Adib: Diabetiko bat imajinatzerakoan bere zeinuak imajinatzen ditugu.

### **1.2: PENTSAMENDU MOTAK:**

-**Ez zuzendua:** Meditazioa, imajinazioa, buruan ibiltzea, ... Nahita ez pentsatzea. Adibideak:

-Paisaiari begira gaudenean ezertan pentsatu gabe, nahiz eta berez beti gauden zerbaitetan pentsatzen.

-Meditazioan, esaldi bat behin eta berriro errepikatzean, esaldi horretan arreta jartzen denez, ez dugu beste ezertan pentsatzen eta garunak deskantsatu egiten du.

-Inoiz Hawaien egon ez arren, nolakoa izango den fantasiatzen edo pentsatzen dugu.

-**Zuzendua:** Arrazoibidetzea edo erabakiak hartzea (diagnostikoan).

-**Memorizatzea:** Oroimeneko ezaugarri guztiekin konparatzen da. Pentsamendu formala da. Adib: Medikua berria.

-**Prototipoen konparazioa:** Formulak bezala. Esperientziarekin erlazionatua dago, prototipoak erabiltzen direlarik. Adib: Diagnostikoa egitean, medikua trebatua bada, diagnostiko hori egiteko ez da hasiko ikasitako teoria guztia gogoratu eta aztertzen, aurrez izandako kasu batekin konparatu eta esperientzia horretan oinarrituz hartzen ditu erabakiak.

### 1.3: ARAZOEN EBAZPENEA:

-Arazoak ebazteko urrats batzuk eman behar dira:

-1. urratsa: **Planteamendua:** Arazoaren identifikazio egokia egin behar da. Adib: azterketa garaian lagunekin haserretzearen benetako arazoa azterketak izan daitezke.

-2. urratsa: **Prestakuntza:** Prozesamendua. Prestakuntza burutzeko informazioa bildu behar da, ingurunea (kultura) aztertu behar da, egitura planteatu behar da, ...

-3. urratsa: **Arazoen ebazpena:** Martxan jartzea. Horretarako metodo ezberdinak daude:

-Entsaio/oker: Hainbat saiakera egitea helburua lortu arte.

-Metodo heuristikoa: Iritzia eratzea errazten duten pentsamendu estrategia sinpleak erabiltzea:

-*Analisisa medio/fin:* Arazo handia helburu txikitara banatzea. Adib:

-Pertsona batek milioiak zor baditu, seguruenik ezin izango du dena batera ordaindu eta beraz, pixkanaka ordainduz egingo dio aurre arazoari.

-Gurutzegrama osoa ebazteko hitzez hitz betetzen dugu.

-*Planifikazioa.*

-Algoritmoak: Arazo baten ebazpena errazteko formula, arau edo prozedura bat erabiltzea.

-4. urratsa: **Ebaluazioa:** Balio duen ala ez ikustea.

-Arazoak ebazterako garaian, hainbat oztoporekin egin dezakegu topo:

-**Ebaztean atzerapenak:** Aurreko ezagutzak arazoaren ebazpena oztopatzen duenean.

-**Buru finkotasuna:** Arazoari era finko batean aurre egiteko joera (inkubatze garaia).

-**Funtzio-finkotasuna:** Guazk bere ohiko funtzioekin ikusteko joera. Adib: Kola, arrautz goringoa, ...

ZENBAT KARRATU DAUDE?


## **2: LENGOAIA:**

-Lengoaia gizakiaren lorpena da. Munduan 5500 hizkuntza daude. Hizkuntzaren malgutasunak eta garunaren malgutasunak hizkuntza menperatzen laguntzen digute.

### **2.1: HIZKUNTZAREN JABETZE PROZESUA:**

-Hizkuntzaren jabetze prozesua urratsez urrats gertatzen da:

-Haurrak 6 aste dituenan: Kontzienteki irribarre egiten hasten da. Lehenago ere egingo zuen irribarre, baina, modu inkontziente batean.

-Haurrak 3 hilabete dituenan: Mihiko muskuluak mugitu eta ezpain ariketak egiten hasten da.

-Haurrak 6-8 hilabete dituenan: Zizakadurekin hasten da, entzuten dutena imitatuz: ama-ama, ata-ata, ... Hasiera batean, mihiaren kokapenagatik b, t, d, eta m hizkiak esateko erraztasuna izango dugu.

-Haurrak 5 urte dituenan: Erabat menperatzen du hizkuntza eta handik aurrera hiztegia zabaltzeari ekingo dio.

-2 urtetatik nerabezarora arteko tartea: PERIODO KRITIKOA izango da, malgutasuna handia izango delako eta hizkuntza bat ikastea errazagoa izango delako.

-Hizkuntzaren jabetze prozesuan lengoaiaren esanahia orokorra da eta horrek lengoaia holofrastikoa izaten laguntzen du. **Holofrastikoa**: Hitz baten bidez ideia asko azaltzea. Adib: Haurrak ama-ama esatean, adieraz dezake ama etorri dela, ama falta dela, amarekin egon nahi duela, ...

### **2.2: HIZKUNTZAREN ANTOLAKUNTZA:**

-Hizkuntza hainbat elementutan antolatzen da:

-**Fonemak:** Oinarrizko soinuak dira (bokalak, kontsonanteak).

-**Morfemak:** Fonemen konbinaketak dira (bi, kin, ...).

-**Hitzak:** Morfema lotuak dira (zen-ba-ki).

-**Esaldiak:** Hitz lotuak dira.

-**Perpausak:** Esaldi lotuak dira.

-**Oinarrizko arau sintaktikoak.**

### 2.3: HIZKUNTZAREN JABETZEAREN INGURUKO TEORIAK: TEORIA PSIKOLINGUISTIKOAK:

-**Bruner:** *Arazoen ebazpenen teoriaren* bidez azaldu zuen haurra hizkuntzarekin jabetzeko garaian beharrak (gosea, logura, amarekin egon beharra, ...) garrantzitsuak direla. Hau da, haurrak, interesatzen zaiona lortzeko hizkuntza behar duenez, errazago ikasiko du.

-**Skinner:** *Baldintza operantearen teoriaren* bidez azaldu zuen haurrak imitatuz, asoziatuz eta baldintzatuz ikasten duela hizkuntza. Haurrak hitz bat imitatzean, amak “*oso ondo!*” esango dio eta bera, haurrak ondo egin duela pentsatuko du eta beraz, ikasi egingo du.

-**Vygotsky:** Pentsamendua eta lengoaia independenteak direla esan zuen.

-**Chomsky:** *Mekanismo biologiko unibertsalaren* bidez azaldu zuen **haurren sentsibilitatea eta esfortzu aktiboa; burmuina eta arnas-aparatua.**